

Administrazio orokorra, administrarien azpieskala:

1. ariketa - a) zatia

Txanda askea

A eredua



1. ZUZENBIDE ADMINISTRATIBOAREN ZEHARKAKO ITURRIAK:

- a) Zuzeneko ituririk ez dagoenean bakarrik aplikatu ahal izango dira zeharkako iturriak, eta, betiere, haien aplikaturik ez bada "behartzen" zuzeneko iturrietatik bat ere.
- b) Kasuan-kasuan planteaturiko gaiaz erabakitzeko bakarrik aplikatu ahal izango dira inolako bitartekotzarik gabe.
- c) Zuzenbidearen printzipio orokorrak bakarrik dira zeharkako iturriok.
- d) Jurisprudentziarik ez denean bakarrik aplikatu ahal izango dira.

2. ZEIN DA ERANTZUN ZUZENA KONSTITUZIOAREN 3.3 ARTIKULUAREN ARABERA, ESPAINIAKO MINTZAIRA-MOLDEEI DAGOKIENEZ?

- a) Espainia aberatsa izanik mintzaira-moldez, lege organiko baten bidez garatuko da horri dagokion araudia.
- b) Espainia aberatsa izanik mintzaira-moldez, bereziki babestuko da araudi bidez nazio-ondare hori.
- c) Espainia aberatsa izanik mintzaira-moldez, bereziki errespetatu eta zainduko da kultura-ondare hori.
- d) Espainia aberatsa izanik mintzaira-moldez, autonomia-erkidego bakoitzak bere lurraldetegiaren babestu beharko du nazio-ondare hori .

3. BEHEKOEN ARTETIK, ZEIN DIRA AHAL DISKREZIONALEN ELEMENTU ARAUTUAK, BESTEAK BESTE?

- a) Ahalaren existentzia bera eta hedadura, bai eta xedea ere.
- b) Deskontzentrazioa eta koordinazioa ahalen esleipenean.
- c) Legearen aginpidea ahalen esleipenean.
- d) Efikazia, hierarkia, desentralizazioa, deskontzentrazioa eta koordinazioa.

4. KONSTITUZIOAREN 81.2 ARTIKULUAREN ARABERA, ZER BEHAR DA LEGE ORGANIKOAK ONESTEKO, ALDATZEKO EDO DEROGATZEKO?

- a) Kongresuaren hiru bosteneko gehiengoa.
- b) Kongresuaren gehiengo soila.
- c) Kongresuaren gehiengo absolutua.
- d) Kongresuaren bi hereneko gehiengoa.



5. ZEIN DA ERANTZUN ZUZENA ADMINISTRAZIO PROZEDURA ERKIDEAREN 2015EKO URRIAREN 1eko 39/2015 LEGEAREN 39. ARTIKULUAN EZARRITAKOAREN ARABERA?

- a) Administrazio publikoen egintzek ondorioak izango dituzte beti ematen diren egunetik, eta ezein kasutan ezin da egintzon efikazia geroratu.
- b) Administrazio publikoen egintzek ondorioak izango dituzte beti ematen diren egunetik, eta egintzaren efikazia geroratu egin ahal izango da deuseztatutako egintzaren baten ordezkoak direnean.
- c) Administrazio publikoen egintzek ondorioak izango dituzte ematen diren egunetik, haietan besterik xedatzen ez bada, eta egintzaren efikazia geroratu egin ahal izango da egintzaren edukiak hala eskatzen badu edo jakinarazpenaren, argitalpenaren edo goragoko onespenaren mende badago.
- d) Ezin dokieke atzeraeraginik eman administrazio publikoen egintzei, zeren, bestela, ematen diren egunetik izango bailitzkete beti egintzok ondorioak.

6. ZEIN DA ERANTZUN ZUZENA ADMINISTRAZIO PROZEDURA ERKIDEAREN 2015EKO URRIAREN 1eko 39/2015 LEGEAREN 75. ARTIKULUAN EZARRITAKOAREN ARABERA?

- a) Ebazpena eman beharra eragin duten egitateak eta konsiderazio juridikoak zehazteko, ezagutzeko eta egiazatzeko behar diren instrukzio-egintzak ofizioz egingo ditu prozedura izapidezten ari den organoak, eta interesdunek ez dute inongo esku-hartzerik izango horretan.
- b) Ebazpena eman beharra eragin duten egitateak eta konsiderazio juridikoak zehazteko, ezagutzeko eta egiazatzeko behar diren instrukzio-egintzak alderdi batek eskaturik bakarrik egingo dira.
- c) Ebazpena eman beharra eragin duten egitateak zehazteko, ezagutzeko eta egiazatzeko behar diren instrukzio-egintzak ofizioz egingo ditu prozedura izapidezten ari den organoak. Interesdunek eskubidea dute, nolanahi ere, beren esku-hartzea eskatzen duten edo legez edo erregelamenduz ezarritako izapideak diren jarduketak proposatzeko.
- d) Administrazio Prozedura Erkidearen 2015eko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 75. artikuluan ezartzen diren instrukzio-egintzak lege-testu horren V. tituluari dagozkie, zeinaren izenburua baita "Egintzak administrazio-bidetik berrikustea":

7. ZEIN DA ERANTZUN ZUZENA KONTUAN HARTURIK KONSTITUZIOAREN 113. ARTIKULUAN ZENTSURA-MOZIOAZ EZARTZEN DENA?

- a) Diputatuen hamarretik batek gutxienez proposatu beharko du zentsura-mozioa, eta ezin bozkatuko da aurkezta eta handik bost egunera baino lehen.
- b) Diputatuen bostetik batek gutxienez proposatu beharko du zentsura-mozioa, eta ezin bozkatuko da aurkezta eta handik hiru egunera baino lehen.
- c) Diputatuen zortzik batek gutxienez proposatu beharko du zentsura-mozioa, eta ezin bozkatuko da aurkezta eta handik lau egunera baino lehen.
- d) Diputatuen lautik batek gutxienez proposatu beharko du zentsura-mozioa, eta ezin bozkatuko da aurkezta eta handik zazpi egunera baino lehen.



8. ZEIN DA ERANTZUN ZUZENA ADMINISTRAZIO PROZEDURA ERKIDEAREN 2015EKO URRIAREN 1eko 39/2015 LEGEARREN 21. ARTIKULUAN EZARRITAKOAREN ARABERA?

- a) Administrazioa behartua dago ebazen espresua eman eta jakinarazteria prozedura guzietan, edozein dela ere prozedura hasteko modua, salbu eta interesdunak atzera egiten duenean.
- b) Administrazioa behartua dago ebazen espresua eman eta jakinarazteria prozedura guzietan, edozein dela ere prozedura hasteko modua, salbu eta prozedura iraungitzea gertatzen denean.
- c) Administrazioa behartua dago ebazen espresua eman eta jakinarazteria prozedura guzietan, edozein dela ere prozedura hasteko modua, salbu eta prozedura itun edo hitzarmen bidez amaitzen den kasuetan eta, orobat, erantzukizunpeko adierazpena egitea edo Administrazioari komunikatzea beste betebeharrik ez dakarten eskubideak baliatzeari dagozkion prozeduretan.
- d) Administrazioa behartua dago ebazen espresua eman eta jakinarazteria prozedura guzietan, edozein dela ere prozedura hasteko modua, baldin eta ebazen hamabi hilabeteko epean ematen bada.

9. KONSTITUZIOAN EZARRITAKOAREN ARABERA, ZEIN DA ERANTZUN ZUZENA PRENTSA, IRRATI ETA TELEBISTARI BURUZKO ARAUEI DAGOKIENEZ?

- a) Estatuak eskumen esklusiboa du gai horretan, alde batera utzi gabe arlo honetan autonomia-erkidegoen zuzenbide substantiboaren berezkotasunak dakartzan nahitaezko berezitasunak.
- b) Estatuak eskumen esklusiboa du gai horretan, alde batera utzi gabe haien garatu eta betearazteko orduan autonomia-erkidegoei dagozkiekeen ahalmenak.
- c) Estatuak eskumen esklusiboa du gai horretan oinarrizko legeria ezartzeko, garatzeko eta betearazteko.
- d) Estatuak eskumen esklusiboa du gai horretan legeria ezartzeko eta arauak garatzeko, alde batera utzi gabe sektore hori antolatzean autonomia-erkidegoei emaniko eskumenak.

10. ZEIN DA ERANTZUN ZUZENA ADMINISTRAZIO PROZEDURA ERKIDEAREN 2015EKO URRIAREN 1eko 39/2015 LEGEARREN 127. ARTIKULUAN EZARRITAKOAREN ARABERA?

- a) Diputatuen Kongresuak Konstituzioan aurreikusitako legegintza-ekimena baliatuko du, lege-aurreproiektuak prestatuz eta onetsiz eta gero lege-proiektuak Erregeari — berrets ditzan— igorri.
- b) Nazioko gobernuak Konstituzioan aurreikusitako legegintza-ekimena baliatuko du, lege-aurreproiektuak prestatuz eta onetsiz eta gero lege-proiektuak Gorte Nagusietara igorri.
- c) Ez dago hierarkia-hurrenkerarik administrazio-xedapenetarako.
- d) Administrazioaren erregelamenduek eta xedapenek delitu, falta edo arau-hauste administratiboak tipifikatu ahal izango dituzte, eta zigor edo zehapenak ezarri ahal izango dituzte, bai eta tributu, ordainarazpen parafiskal edo izaera publikoko beste karga edo prestazio pertsonal edo ondarezkoak ere, baldin eta Gorte Nagusiek baimena eman badute.



11. NOIZ DA APLIKATZEKOA LARRIALDIKO IZAPIDETZEA, AINTZAT HARTURIK ZER EZARTZEN DUEN 120.1 ARTIKULUAN SEKTORE PUBLIKOKO KONTRATUEI BURUZKO AZAROAREN 8KO 9/2017 LEGEAK, ZEINAK EUROPAKO PARLAMENTUAREN ETA KONTSEILUAREN 2014KO OTSAILAREN 26KO 2014/23/EB ETA 2014/24/EB ZUZENTARAUEN TRANSPOSIZIOA EGITEN DUEN ESPAINIAKO ORDENAMENDU JURIDIKORA?

- a) Interes publikoa dela-eta kontratuen adjudikazioa bizkortu beharra dagoenean.
- b) Atzera ezineko premia daukaten kontratuen kasuan.
- c) Administrazioak berehala jardun behar badu hondamendiak gertatu direlako.
- d) Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

12. EUSKARAREN ERABILERA NORMALIZATZEKO AZAROAREN 24KO 10/1982 OINARRIZKO LEGEAREN ATARIKO TITLUAREN ARABERA, ZERI ATXIKIKO ZAIO EUSKARAREN ETA GAZTELANIAREN ERABILERA?

- a) Bakarrik Euskararen Erabilera Normalizatzeko 10/1982 Legean beraean ezarritakoari.
- b) Euskal Herriaren Autonomia Estatutuan euskararen eta gaztelaniaren normalizazioari eta erabilerari buruz xedatutakoari.
- c) Euskal Herriko lurralte historikoetako batzar nagusietan euskararen normalizazioaz eta erabileraz ematen diren xedapenei.
- d) Lege honetan agindutakoari eta lege honen hedapenerako Eusko Legebiltzarrak eta Jaurlaritzak eman ditzaten gainerako aginduei.

13. DATUEN BABESARI BURUZKO 2016/679 (EB) ERREGELAMENDU OROKORRAREN 4.7 ARTIKULUAN EZARRITAKOAREKIN BAT, NOR DA "TRATAMENDUAREN ARDURADUNA"?

- a) Datu pertsonalen nahiz datu pertsonalen multzoen tratamendu-eragiketa(k) materialki egiten d(it)uen pertsona, prozedura automatizatuen bitartez egin zein ez.
- b) Datu pertsonaletan nahiz datu pertsonalen multzoetan eragiketa edo eragiketa-multzoak egiteko adostasun espresua ematen duen pertsona, prozedura automatizatuen bitartez egin zein ez.
- c) Bere kabuz zein beste batzuekin batera, tratamenduaren helburuak edo bitartekoak zehazten dituen pertsona fisikoa edo juridikoa, agintari publikoa, zerbitzua edo organismoa.
- d) Ez dago erregelamenduan kontzeptu horren definizio zehatzik.



14. ZEIN DA ERANTZUN ZUZENA EUSKAL FUNTZIO PUBLIKOARI BURUZKO 1989KO UZTAILAREN 6KO 6/1989 LEGEAREN 53. ARTIKULUAN EZARRITAKOAREN ARABERA?

- a) Lanpostu baten behin-behingoz jarduten duten bitartean, lanpostu horri izendatutako lansari osagarriak jasoko dituzte funtzionarioek eta, betiere, bere graduari dagokion destino-osagarria. Ezingo da aldi baterako osagaririk jaso, baldin eta behin-behineko atxikipena gertatu bada lehengo lanpostua ezabatu delako edo edukia aldatzearen ondorioz lekualdaketa egon delako eta lanpostu berriari izendatutako lansariak utzitakoarenak baino txikiagoak badira.
- b) Lanpostu baten behin-behingoz jarduten duten bitartean, lanpostu horri izendatutako lansari osagarriak jasoko dituzte funtzionarioek eta, betiere, bere graduari dagokion destino-osagarria. Aldi baterako osagarri bat jaso ahal izango da, baldin eta behin-behineko atxikipena gertatu bada uko egitearen ondorioz, izendapena egin zuen organoak onartuz gero.
- c) Lanpostu baten behin-behingoz jarduten duten bitartean, lanpostu horri izendatutako lansari osagarriak jasoko dituzte funtzionarioek eta, betiere, beren graduari dagokion destino-osagarria, eta ez da aukerarik izango aldi baterako ezein osagarritarako. Ez da salbuespenik izango arau horretarako.
- d) Lanpostu baten behin-behingoz jarduten duten bitartean, lanpostu horri izendatutako lansari osagarriak jasoko dituzte funtzionarioek eta, betiere, bere graduari dagokion destino-osagarria. Aldi baterako osagarri bat jaso ahal izango da, baldin eta behin-behineko atxikipena gertatu bada lehengo lanpostua ezabatu delako edo edukia aldatzearen ondorioz lekualdaketa egon delako eta lanpostu berriari izendatutako lansariak utzitakoarenak baino txikiagoak badira.

15. ZEIN DA ERANTZUN ZUZENA ADMINISTRAZIO PROZEDURA ERKIDEAREN 2015eko URRIAREN 1eko 39/2015 LEGEAREN 43. ARTIKULUAN JAKINARAZPENAK BITARTEKO ELEKTRONIKOZ EGITEARI BURUZ EZARRITAKOAREN ARABERA?

- a) Diharduen administrazioaren edo organismoaren egoitza elektronikoan agertuz bakarrik egingo dira jakinarazpenak interesdunaren ordezkariori egiten zaizkionean.
- b) Emandako helbide elektroniko bakarraren bidez bakarrik egingo dira interesdunari egiten zaizkionean.
- c) Diharduen administrazioaren edo organismoaren egoitza elektronikoan agertuz egingo dira halako jakinarazpenak, emandako helbide elektroniko bakarraren bidez edo bi sistemek bidez, administrazio edo organismo bakoitzak erabakitzent duenaren arabera.
- d) Ezingo da jakinarazpenik egin bitarteko elektronikoz, salbu eta interesduna behartua dagoenean bide horretatik jasotzera.



16. BIZKAIKO KONDAIRA LURRALDEKO FORU ERAKUNDEEN HAUTAPEN, ANTOLAKETA, ERREGIMEN ETA FUNTZIONAMENDUARI BURUZKO OTSAILAREN 13KO 1987/3. FORU ARAUAREN 11. ARTIKULUAREN ARABERA, BATZAR NAGUSIEK AUKERA IZANGO DUTE FORU ALDUNDIARI ESKUORDETZEKO FORU ARAUEN MAILAKO ARAU-XEDAPENAK —FORU DEKRETU ARAUEMAILE DERITZENAK— EMATEKO AHALA; HAUETATIK ZEIN ARLOTAN BALIATU DEZAKETE AUKERA HORI?

- a) Kondaira Lurraldeko hauteskunde-araubidean.
- b) Foru Aldundiaren oinarrizko ordenamendua edo Kondaira Lurraldeko Administrazioaren Erregimen Juridikoa ukitzen dituztenetan.
- c) Zergen arloan, helburu bakarra Bizkaiko Lurralde Historikoko legeria egokitzea denean, baldin eta Kontzertu Ekonomikoan xedatutakoaren arabera Lurralde Historikoan araubide erkideko lurraldean dauden funtsezko eta erazko arau berberak izan behar badira aginduzko.
- d) Kondaira lurraldeko antolaketa eta banaketa politiko-administratiboari dagozkion gaietan.

17. BIZKAIKO GARDENTASUNARI BURUZKO OTSAILAREN 17KO 1/2016 FORU ARAUAREN 18. ARTIKULUAREN ARABERA, ZER BEHAR DA INFORMAZIO PUBLIKOA ESKURATZEKO ESKUBIDEA BALIATZEKO?

- a) Motibazioren bat.
- b) Interesdun-izaera egiaztatzea.
- c) Tartean eskubide edo interes legitimoren bat badela egiaztatzea.
- d) Ez da behar motibaziorik, ezta interesdun izaera edo bestelako eskubide edo interes legitimorik egiaztatu behar ere.

18. BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO ZERGEI BURUZKO MARTXOAREN 10EKO 2/2005 FORU ARAUAREN 2. ARTIKULUAREN ARABERA, ZERGA-SISTEMAREN ANTOLAMENDUA ZERGAK ORDAINDU BEHAR DITUZTEN PERTSONEN AHALMEN EKONOMIKOAN ETA SEI PRINTZIPIOTAN OINARRITZEN DA: JUSTIZIA, OROKORTASUNA, BERDINTASUNA, AURRERAKORTASUNA, ZERGA-ZAMAREN BANAKETA ZUZENA ETA... ZEIN DA SEIGARREN PRINTZIPIOA?

- a) Proportzionaltasuna.
- b) Konfiskaziozko ez izatea.
- c) Efikazia.
- d) Eginbehar formalak betetzetik eratorritako zehar-kostuen mugapena.

19. 2007KO ABENDUAREN 13KO LISBOAKO TRATATUAREN 9 B 2 ARTIKULUAREKIN BAT, ZEIN DIRA, BESTEAK BESTE, EUROPAKO KONTSEILUKO KIDEAK?

- a) Europako Batzordeak izendaturiko parlamentarioak.
- b) EBko herrialdeetako Gobernuetako ministroak.
- c) EBko herrialdeetako Gobernuek izendaturiko komisarioak.
- d) EBko herrialdeetako estatuburuak edo gobernuburuak.



20. PERTSONA FISIKOEN ERRENTAREN GAINeko ZERGARI BURUZKO ABENDUAREN 5eko 13/2013 FORU ARAUAREN 4. ARTIKULUAREKIN BAT, ZERGADUNEK ZEIN ZERGATAN IZANGO DUTE BETEBEHAR ERREALA BALDIN ETA AUKEratzen BADUTE EZ-EGOILiarren ERRENTAREN GAINeko ZERGAN TRIBUTATZEA?

- a) Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergan.
- b) Ondarearen gaineko Zergan.
- c) Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zergan.
- d) Sozietaeten gaineko Zergan.

21. BIZKAICO KONDAIRA LURRALDEKO FORU ERAKUNDEEN HAUTAPEN, ANTOLAKETA, ERREGIMEN ETA FUNTzIONAMENDUARI BURUZKO 1987KO OTSAILAREN 13KO 3/1987 FORU ARAUAREN 38. ARTIKULUAREN ARABERA, ZEIN DA ERANTZUN ZUZENA FORU DIPUTATUEN KASUAN?

- a) Beren izendapena argitaratzen den egunean hasten da Aldundiarekin duten zerbitzu-harremana.
- b) Batzar Nagusiek izendatu eta kargutik kentzen dituzte aparteko bilkuran.
- c) Kargua uzten dute Batzar Nagusien konfiantza galtzeagatik, foru arau honen 52. artikuluaren arabera.
- d) Konfiantzazko langileak izendatu eta kentzen dituzte, Bizkaiko Kondaira Lurraldeko Aurrekontuetan kontsignatutako kredituen barruan.

22. BIZKAICO LURRALDE HISTORIKOKO FORU ERAKUNDEEN HAUTAPEN, ANTOLAKETA, ERREGIMEN ETA FUNTzIONAMENDUARI BURUZKO OTSAILAREN 13KO 3/1987 FORU ARAUAREN 8. ARTIKULUAREN ARABERA, NORI EZ DAGOKIO BATZAR NAGUSIETAN ARAUEMATE-EKIMENA EGITEA?

- a) Batzar Nagusietako kideei, Batzar Nagusien Erregelamenduan ezarritakoaren arabera.
- b) Ahaldun Nagusiari.
- c) Herritarrei, herri arauemate-ekimena erabiliz.
- d) Batzar Nagusietako taldeei, Batzar Nagusien Erregelamenduan ezarritakoaren arabera.

23. ONDASUN HIGIEZINEN GAINeko ZERGARI BURUZKO 2016KO MAIATZAREN 18KO 4/2016 FORU ARAUAREN 4.4 ARTIKULUAREN ARABERA, EZ DA EGINGO LIKIDAZIO BAKARRA ETA ZERGA-KUOTA ZATITU EGINGO DA BALDIN ETA ONDASUNEN TITULARTASUNA MODU KOMUN EDO ERKIDEAN HAUEI BADAGOKIE:

- a) Irabazpidezkoen araubideko ezkontideei.
- b) Ondasunen foru komunikazioaren araubideko ezkontideei.
- c) Ekonomia- eta ondare-araubide legez aurrekoetako edozein itundu duten izatezko bikoteetako kideei.
- d) Ondasun-erkidego edo sozietaete zibil bateko kideei.



24. OINORDETZA ETA DOHAINZEN GAINeko ZERGARI BURUZKO MARTXOAREN 25EKO 4/2015 FORU ARAUAREN 5. ARTIKULUAREN ARABERA, HONAKO HAUETATIK ZEIN EZ DA OINORDETZA-TITULU?

- a) «Mortis causa» dohaintza.
- b) Komisarioak testamentua egiteko ahalordea erabiltzetik datozen egintzak, hartzen duten forma edozein dela ere.
- c) Ezkontza-itunetan oinordea izendatzea.
- d) Eskubideei uko egitea pertsona jakin baten alde.

25. SOZIETATEEN GAINeko ZERGARI BURUZKO 2013KO ABENDUAREN 5EKO 11/2013 FORU ARAUAREN 13.2 ARTIKULUAREN ONDORIOETARAKO, HONAKO HAUEN ARTEAN ZEIN EZ DA JOKO ENPRESA TXIKITZAT:

- a) Ustiapan ekonomiko bat egiten duena.
- b) Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Itunean zehazten denez, 10 milioi eurotik gorakoa ez den aktiboa edo eragiketa bolumena duena.
- c) Batez beste, plantillan lanean 10 pertsona baino gutxiago duena.
- d) Azaldutako betekizunetako bat bera ere betetzen ez duen beste enpresa batek haren gaineko % 25etik gorako partaidetzarik ez duena —ez zuzenean, ez zeharka—, salbu eta beste enpresa hori arrisku-kapitaleko funts edo soziestateak direnean eta haien aplikagarri bazaie foru arau honetako VI. tituluko IV. kapituluaren ezarritako araubide berezia, partaidetza hori soziestatearen xedea betetzearen ondorio denean.

26. AUTONOMIA ESTATUTUAREN 18.2 ARTIKULUAREN ARABERA, ZER DAGOKIO EUSKADIKO AUTONOMIA ERKIDEGOARI GIZARTE-SEGURANTZAREN ARLOAN?

- a) Bakarrik Estatuaren oinarrizko legeria, haren araubide ekonomikoa mamitzen duten arauak izan ezik, lege bidez garatzea, baita Gizarte Segurantzaren araubide ekonomikoaren kudeaketa ere.
- b) Estatuaren oinarrizko legeria Gizarte Segurantzaren araubide ekonomikoa mamitzen duten arauak izan ezik, lege bidez garatu eta betearaztea, baita Gizarte Segurantzaren araubide ekonomikoaren kudeaketa ere.
- c) Eskumen esklusiboa, sektoreko antolamendu orokorrarekin bat etorrita.
- d) Estatuaren oinarrizko legeria, haren araubide ekonomikoa osatzen duten arauak barne, lege bidez garatzea, baita Gizarte Segurantzaren araubide ekonomikoaren kudeaketa ere.

27. BIZKAIKO KONDAIRA LURRALDEKO FORU ERAKUNDEEN HAUTAPEN, ANTOLAKETA, ERREGIMEN ETA FUNTZIONAMENDUARI BURUZKO OTSAILAREN 13KO 3/1987 FORU ARAUAREN 27. ARTIKULUAREKIN BAT, ZER DAGOKIO AHALDUN NAGUSIARI FORU ALDUNDIAREN LEHENDAKARI EDO BURU GISA?

- a) Izendatzea Foru Aldundiaren ordezkariak edozein erakunde publiko edo pribatutan.
- b) Foru Aldundiari, Legearekin bat etorrita, jartzen zaizkion errekursoak ebaztean.
- c) Kontratuak egiteko baimena ematea, foru arau honen IV. tituluko III. kapituluaren ezarritako moduan.
- d) Foru diputatuak izendatu eta kentzea.



28. BALIO ERANTSAREN GAINeko ZERGARI BURUZKO 1994KO AZAROAREN 9KO 7/1994 FORU ARAUAREN 3.2.1 ARTIKULUAREKIN BAT, ADUANA-BATASUNAREN BARRUAN EZ DAUDEN HURRENGO LURRALDEEN ARTEAN ZEIN LURRALDE DAGO ZERGA HORREN EZARPEN-EREMUTIK EDO APLIKAZIO-ESPARRUTIK KANPO?

- a) Espainiako Erresuman, Kanariak.
- b) Frantziako Errepublikan, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 349. artikuluan eta 355. artikuluan, 1. atalean, jasotako frantziar lurrealdeak.
- c) Errepublika Helenikoan, Ath os Mendaia.
- d) Italiako errepublikan, Livigno, Campione d'Italia eta Lugano Aintzirako ur nazionalak.

29. EKONOMI JARDUEREN GAINeko ZERGARI BURUZKO 1989KO EKAINAREN 30EKO 6/1989 FORU ARAUAREN TESTU BATEGINA ONESTEN DUEN 1992KO MARTXOAREN 17KO 2/1992 FORU DEKRETU ARAU-EMAILEAREN 1.2 ARTIKULUAREKIN BAT ETORRITA, ZEIN DA HURRENGOEN ARTEAN ZERGA HORREN ZERGA-EGITATEA?

- a) Enpresen aktibo finkoan integraturik dauden eta besterenganatu baino bi urte lehenagotik ibilgetu horretan behar bezala inventariaturik egon diren ondasunak besterenganatzea, eta saltzailearen erabilera partikular eta pribatuko ondasunen salmenta, baldin eta denboraldi berean erabili baditu.
- b) Abeltzaintza-jarduerak, lokabeak edo izaera independentekoak direnean.
- c) Lan pertsonalen edo lanbide-zerbitzuen ordainean jasotako ekoizkinen salmenta.
- d) Establezimendua apaindu edo edertzeko xede hutsezko gaien erakustea.

30. ZEINTZUK IZAN DAITEZKE ERREGELAMENDU-AHALAREN MUGAK?

- a) Muga formalak eta muga materialak.
- b) Erregelamendu-ahalak ez du mugarik lege organiko batean horrela jasota dagoenean.
- c) Erregelamendu-ahalak muga bakarra du, eskumenari buruzko erreferentzia egiten duena.
- d) Erregelamendu-ahalak muga bakarra du, legez erreserbatutako gaiei buruzko erreferentzia egiten duena.

31. AUTONOMIA ESTATUTUAREN 8. ARTIKULUAK DIO EUSKAL HERRIKO AUTONOMIA ERKIDEOARI ATXIKI AHAL IZANGO ZAIZKIOLA BERE LURRALDE BARRUAN GUZTIZ KOKATURIKO BESTE LURRALDE ETA UDALERRI BATZUK, BAINA BALDINTZA BATZUK BETEZ. HONAKO HAUEN ARTEAN ZEIN DA BETE BEHARREKO BALDINTZETAKO BAT?

- a) Foru aldundi interesdunak eta, ondoren, Eusko Legebiltzarrak gehiengo osoz onartzea.
- b) Gorte Nagusiek eta, ondoren, Eusko Legebiltzarrak gehiengo osoz onartzea.
- c) Eusko Legebiltzarrak eta, ondoren, Estatuko Gorte Nagusiek lege organiko bidez onartzea.
- d) Senatuko Ganberak eta, ondoren, foru aldundi interesdunak gehiengo osoz onartzea.



32. 1983KO AZAROAREN 25EKO 27/1983 LEGEAREN 7.c) ARTIKULUAN XEDATUTAKOAREN ARABERA, ERAKUNDE ERKIDEEN ZEIN ARLOTAKO LEGERIA DAGOKIE EXEKUTATZEA LURRALDE HISTORIKOEI, BAKOITZAREN LURRALDEAREN BARRUAN?

- a) Ur kontinental publikoen eta ur horien berezko ibilguen, ur-bazterren eta zortasunen zaintza.
- b) Babestutako natura-guneen administrazioa.
- c) Udal eta maila apalagoko toki-erakundeetako hauteskunde-jaurpidea edo erregimena.
- d) Lurralte historikoaren titulartasunekoak diren eta Arte Ederrekin eta Artisautzarekin zerikusia duten artxibo, biblioteka, museo eta haiei loturiko erakundeak.

33. ADMINISTRAZIO PUBLIKOEN ADMINISTRAZIO PROZEDURA ERKIDEAREN 2015EKO URRIAREN 1EKO 39/2015 LEGEAREN 9. ARTIKULUAN AIPATZEN DIREN IDENTIFIKAZIO-SISTEMETAKOREN BAT ONARTU BEHAR DUTE ADMINISTRAZIO PUBLIKO GUZTIEK?

- a) Bai, administrazio publiko guztiak, eta identifikazio-sistema guztiak onartu behar dituzte izapide edo prozedura guztieta rako.
- b) Ez, administrazio publiko bakoitzak zehaztu ahal izango du izapide edo prozedura jakin batzuk egiteko identifikazio-sistema horietakoren bat bakarrik onartzen duen. Eta haietako bat, edozein, onartzeak gainerako guztiak onartzea ekarriko du.
- c) Ez, administrazio publiko bakoitzak zehaztu ahal izango du izapide edo prozedura jakin batzuk egiteko identifikazio-sistema horietakoren bat bakarrik onartzen duen. Eta ziurtagiri elektroniko aitortuetan edo zigilu elektronikoko kualifikatuetan oinarritutako — eta “ziurtapen-zerbitzuen emaileen konfiantzazko zerrenda” delakoaren barruko zerbitzu-emaileek emandako— sistemak onartzeak gainerako guztiak onartzea ekarriko du.
- d) Ez, administrazio publiko bakoitzak zehaztu ahal izango du izapide edo prozedura jakin batzuk egiteko identifikazio-sistema horietakoren bat bakarrik onartzen duen. Nolanahi ere, Estatuko Administrazio Orokorrak sistema horietako bat onartzeak balioa izango du administrazio-prozeduran interesdun direnen identifikazio elektronikoa egiaztatzeko administrazio publiko guztiengau aurrean, salbu eta kontrako frogarik badago.

34. 1983KO AZAROAREN 23KO 27/1983 LEGEAREN 2.2 ARTIKULUAN XEDATUTAKOAREN ARABERA, ZEIN PRINTZIPIOREN ARABERA JARDUNGO DUTE EUSKADIKO ADMINISTRAZIOEK BEREN ESKUMENAK, BAKOITZAK BEREAK, ERABILTZEAN:

- a) Lankidetza eta elkartasunaren arabera.
- b) Lankidetza eta eraginkortasunaren arabera.
- c) Koordinazio eta eraginkortasunaren arabera.
- d) Koordinazio eta elkartasunaren arabera.



35. ZEIN DA ERANTZUN ZUZENA ADMINISTRAZIO PROZEDURA ERKIDEAREN 2015EKO URRIAREN 1eko 39/2015 LEGEAREN 52. ARTIKULUAN EZARRITAKOAREN ARABERA?

- a) Administrazioak ezin izango ditu inolaz ere egintza deusezak baliozkotu.
- b) Administrazioak ezin izango ditu inolaz ere egintza deuseztagarriak baliozkotu.
- c) Egintza deuseztagarri bat baliozkotzeko egintzak egiten den egun beretik izango ditu beti ondorioak.
- d) Egintza deusez bat baliozkotzeko egintzak egiten den egun beretik izango ditu ondorioak, 39.3 artikuluak administrazio-egintzen atzeraeraginaz ezarritakoa salbu.

36. EUSKADIKO AUTONOMIA ERKIDEOAREKIKO EKONOMIA ITUNA ONARTZEN DUEN MAIATZAREN 23KO 12/2002 LEGEAREN 48. ARTIKULUAREN BOSGARREN PUNTUAREN ARABERA, NORI DAGOZKIO TOKI ERAKUNDEEN FINANTZA-TUTORETZAKO AHALMENAK?

- a) Estatuko erakunde eskudunei.
- b) Euskadiko erakunde eskudunei.
- c) Euskadiko Udalen Elkarteari.
- d) Estatuko eta Euskadiko Autonomia Erkidegoko ordezkariek osatutako erakunde paritario bati.

37. ZEIN DA ERANTZUN ZUZENA ADMINISTRAZIO PROZEDURA ERKIDEAREN 2015EKO URRIAREN 1eko 39/2015 LEGEAREN 100. ARTIKULUAN EZARRITAKOAREN ARABERA?

- a) Administrazio publikoek nahitaezko betearazpena ondarearen gaineko premiamenduaren bidez egingo dute, besteak beste, eta, kasuen arabera, proportzionaltasun-printzipioa errespetatu beharko dute.
- b) Administrazio publikoek nahitaezko betearazpena ondarearen gaineko premiamenduaren bidez egingo dute, besteak beste, eta beti proportzionaltasun-printzipioa errespetatu beharko dute.
- c) Administrazio publikoen nahitaezko betearazpenerako bitartekoak, onar daitezkeenak bat baino gehiago direnean, nahierara hauta daitezke, ez baitago norbanakoaren askatasuna gutxien murriztuko duena hautatzeko inolako beharrik.
- d) Interesdunaren etxebitztan edo titularren baimena behar den bestelako lekuetan sartu beharra badago, administrazio publikoak ez daude haren onespina edo, halakorik ez badago, dagokion baimen judizialean lortzera behartuta.



38. 1983KO AZAROAREN 25EKO 27/1983 LEGEARREN 30. ARTIKULUAREN ARABERA, HERRI-KONTUEN EUSKAL EPAITEGIAK, BERE FISKALIZAZIO-EGINKIZUNA BETETZEKO, TXOSTEN BAT IDATZI BEHARKO DU. BAINA ZEIN DA, TXOSTEN HORI DELA ETA, HURRENGO ERANTZUNEN ARTEAN ZUZENA DENA?

- a) Txostena Herri Dirubideen Euskal Kontseiluak aztertuko du aurretik, eta, ondoren, Eusko Legebiltzarrera eta dagozkion batzar nagusietara bidaliko du, onets dezaten.
- b) Euskal sektore publikoa osatzen duten gainontzeko erakunde guztiak, euskal soziitate publikoak alde batera utzita, ekitaldian zehar egindako aurrekontu-, ondare- eta diruzaintza-eragiketa guztiak jasotzen dituen kontuak bilduko ditu.
- c) Txostena Eusko Legebiltzarrari eta dagozkion batzar nagusiei bidaliko zaie, eta Jaurlaritzari eta dagokion foru aldundiari helaraziko zaie.
- d) Sektore publikoko langileentzako ordainsarien eta ondasun arrunten eta zerbitzuen erosketa-gastuen hazkunde-maila orientagarria ezarriko du, baita eragiketa arrunten araberako gastuen hazkunde mugatu eta kontrolatua lortzeko interesgarritzat jotzen dituen neurriak ere.

39. ZEIN DA ERANTZUN ZUZENA ADMINISTRAZIO PROZEDURA ERKIDEAREN 2015EKO URRIAREN 1eko 39/2015 LEGEARREN 131. ARTIKULUAN EZARRITAKOAREN ARABERA?

- a) Administrazio-xedapenak berez dagokien aldizkari ofizialean bakarrik argitaratuko dira, eta ezin izango da ezarri bestelako publizitate-komunikabide osagarriek.
- b) Erregelamenduak ez dira berez dagokien aldizkari ofizialean argitaratu beharko indarrean jar daitezen eta ondorio juridikoak izan ditzaten.
- c) Lege-mailako arauak, erregelamenduak eta administrazio-xedapenak berez dagokien aldizkari ofizialean argitaratu beharko dira indarrean jar daitezen eta ondorio juridikoak izan ditzaten.
- d) Administrazio publikoek ezin izango dute kasu bakoitzean dagokien aldizkari ofizialen osagarri den bestelako publizitate-komunikabiderik ezarri.

40. KONSTITUZIOAREN ARABERA, ZEIN DA BAIEZTAPEN HAUETATIK OKERRA DENA?

- a) Konstituzioaren 22. artikuluaren xedatutakoaren babesean eratutako elkarrekin izena eman beharko dute erregistro batean, publiko egiteko xede hutsarekin.
- b) Konstituzioaren 17.3 artikuluaren arabera, atxiloturik dagoen pertsona orori berehalan jakinarazi beharko zaio, berak ulertzeko moduan, zer eskubide dituen eta zein diren atxilotzeko arrazoiak, eta ezin behartuko da deklaratzeria.
- c) Konstituzioaren 15. artikuluaren arabera, ezeztatu egiten da heriotza-zigorra, non eta lege penal militarrek ez duten besterik xedatzen gerra-denborarako.
- d) Konstituzioaren 18.3 artikuluaren arabera, bermatu egiten da komunikazioen isilpekotasuna eta, bereziki, posta, telegrafo eta telefono bidezkoena, gobernuaren agindua badago izan ezik.



41. SEKTORE PUBLIKOKO KONTRATUEI BURUZKO AZAROAREN 8KO 9/2017 LEGEAREN 126.6 ARTIKULUAN XEDATUTAKOAREN ARABERA, ZEIN DA BAIEZTAPEN HAUETATIK ZUZENA DENA? (LEGE HORREK EUROPAKO PARLAMENTUAREN ETA KONTSEILUAREN 2014KO OTSAILAREN 26KO 2014/23/EB ETA 2014/24/EB ZUENTARAUEN TRANSPOSIZIOA EGITEN DU ESPAINIAKO ORDENAMENDU JURIDIKORA).

- a) Kontratuaren objektua dela-eta bidezkoa denean izan ezik, preskripzio teknikoetan ezin izango da aipatu fabrikazio edo jatorri zehatzik.
- b) Kontratuaren objektua dela-eta bidezkoa denean izan ezik, preskripzio teknikoetan aipatu egin beharko da fabrikazio edo jatorri zehatzka.
- c) Kontratuaren objektua dela-eta bidezkoa denean izan ezik, administrazio-klausula partikularretan ezin izango da aipatu fabrikazio edo jatorri zehatzik.
- d) Kontratuaren objektua dela-eta bidezkoa denean izan ezik, administrazio-klausula partikularretan aipatu egin beharko da fabrikazio edo jatorri zehatzka.

42. DATUEN BABESARI BURUZKO 2016/679 (EB) ERREGELAMENDU OROKORRAREN 4.1 ARTIKULUAN EZARRITAKOAREKIN BAT, ZEINTZUK JOTZEN DIRA "DATU PERTSONAL"TZAT?

- a) Tratamenduaren xedeko datuen titularra den pertsonak sinatutako baimenaren atal egokian baldintza hori agerrazten duen informazio guztia.
- b) Pertsona fisiko edo juridiko identifikatu edo identifikagarri baten («interesadunaren») gaineko edozein informazio. Hauxe joko pertsona identifikagarritzat: nortasuna zuzenean edo zeharka zehatz dakiokeen pertsona oro, bereziki identifikatzaile baten bidez zehatz dakiokeena, esaterako, izen baten bidez, identifikazio-zenbaki baten bidez edo lokalizazio-datuuen bidez.
- c) Ez dago Erregelamenduan kontzeptu horren definizio zehatzik.
- d) Pertsona fisiko identifikatu edo identifikagarri baten («interesadunaren») gaineko edozein informazio. Hauxe joko pertsona fisiko identifikagarritzat: nortasuna zuzenean edo zeharka zehatz dakiokeen pertsona oro, bereziki identifikatzaile baten bidez zehatz dakiokeena, esaterako, izen baten bidez, identifikazio-zenbaki baten bidez edo lokalizazio-datuuen bidez.

43. KONSTITUZIOAREN 93. ARTIKULUAREN ARABERA, NORK BERMATU BEHAR DU NAZIOARTEKO TRATATUAK EDO LAGAPENAREN TITULAR DIREN NAZIOARTEKO EDO NAZIOZ GAINDIKO ERAKUNDEEN EBAZPENAK BETETZEN DIRELA?

- a) Gorte Nagusiek edo Gobernuak, kasuaren arabera.
- b) Diputatuen Kongresuak edo Gobernuak, kasuaren arabera.
- c) Gorte Nagusiek edo Auzitegi Konstituzionalak, kasuaren arabera.
- d) Diputatuen Kongresuak edo Auzitegi Konstituzionalak, kasuaren arabera.



44. ZEIN DA ERANTZUN ZUZENA EUSKAL FUNTZIO PUBLIKOARI BURUZKO 1989KO UZTAILAREN 6KO 6/1989 LEGEAREN 68. ARTIKULUAN EZARRITAKOAREN ARABERA?

- a) Lanpostua erreserbatuta ez duten funtzionarioen jarduneko zerbitzura itzultzea lehentasun-hurrenkera honen arabera egingo da: destino zain daudenak, nahitaezko eszedentzia-egoeran daudenak, etenaldi-egoeran daudenak, borondatezko eszedentzia-egoeran daudenak eta beste administrazio publiko batuetan zerbitzuan dihardutenak.
- b) Lanpostua erreserbatuta ez duten funtzionarioen jarduneko zerbitzura itzultzeko, aurrekontuan zuzkidura duen plaza hutsen bat egon behar da, eta, baldintza hori betetzen denean, lehentasun-hurrenkera honen arabera itzuliko dira: destino zain daudenak, nahitaezko eszedentzia-egoeran daudenak, etenaldi-egoeran daudenak, borondatezko eszedentzia-egoeran daudenak eta beste administrazio publiko batuetan zerbitzuan dihardutenak.
- c) Lanpostua erreserbatuta ez duten funtzionarioen jarduneko zerbitzura itzultzeko, aurrekontuan zuzkidura duen plaza hutsen bat egon behar da, eta, baldintza hori betetzen denean, lehentasun-hurrenkera honen arabera itzuliko dira: beste administrazio publiko batuetan zerbitzuan dihardutenak, nahitaezko eszedentzia-egoeran daudenak, etenaldi-egoeran daudenak, borondatezko eszedentzia-egoeran daudenak eta destino zain daudenak.
- d) Lanpostua erreserbatuta ez duten funtzionarioen jarduneko zerbitzura itzultzea lehentasun-hurrenkera honen arabera egingo da: beste administrazio publiko batuetan zerbitzuan dihardutenak, nahitaezko eszedentzia-egoeran daudenak, etenaldi-egoeran daudenak, borondatezko eszedentzia-egoeran daudenak eta destino zain daudenak.

45. BIZKAIKO GARDENTASUNARI BURUZKO 2016KO OTSAILAREN 17KO 1/2016 FORU ARAUAREN 21. ARTIKULUAREN ARABERA, ARLO HAUETAKO BATEAN EZIN IZANGO DA UKATU INFORMAZIOA ESKURATZEKO AUKERA, ARRASOITUTA BADA ETA BENETAKO KALTE BAT ERAGITEN DELA EGIAZTATZEN BADA. ZEIN DA ARLO HORI?

- a) Ingurumenaren babesia.
- b) Ez-zilegi penalen edo administrazioko arau-hausteen prebentzia, ikerketa eta zehapena. Arau-hausteen kasuan, betiere arinak direnean.
- c) Erabakiak hartzeko prozesuetan bete behar den bapestekotasunaren edo sekretuaren bermea.
- d) Alderdien berdintasuna prozesu judizialetan.

46. ZERGEI BURUZKO 2005eko MARTXOAREN 10eko 2/2005 FORU ARAU OROKORRAREN 7. ARTIKULUAREN ARABERA, ZELAN ARAUTUKO DIRA ZERGA-ZOR ETA ZERGA-ZEHAPENEN BARKAMENA ETA LUZAMENDU ETA KITEN EMAKIDA OROKORRA?

- a) Foru dekretu arauemaileen bidez.
- b) Lege-arau baten bidez.
- c) Legegintzako dekretu baten bidez.
- d) Foru arau baten bidez.



47. KONSTITUZIOAREN 122.3 ARTIKULUAREN ARABERA, ZELAN HAUTATZEN DIRA DIPUTATUEN KONGRESUAK ETA SENATUAK PROPOSATUTAKO BOTERE JUDIZIALAREN KONSEILU NAGUSIKO KIDEAK?

- a) Bi hereneko gehiengoz.
- b) Gehiengo osoz.
- c) Hiru bosteneko gehiengoz.
- d) Gehiengo soilez.

48. PERTSONA FISIKOEN ERRENTAREN GAINeko ZERGARI BURUZKO 2013KO ABENDUAREN 5eko 13/2013 FORU ARAUAREN 9. ARTIKULUAN XEDATUTAKOAREN ARABERA, ZEINTZUK DIRA ZERGATIK SALBUETSITA EZ DAUDEN ERRENTAK?

- a) Lagunza publikoak jasotzea, sute, uholde edo hondoratzeengatik ondare-elementuetan izandako kalteak konpontzeko direnean.
- b) Epaimahaikidegaiek eta epaimahaikide titular eta ordezkoek beren eginkizunak betetzearen ondorioz jasotako zenbatekoak.
- c) Loteriako Nacionalaren eta ONCEren sarien zioz jasotako zenbatekoak.
- d) Hileta edo ehorzketagatik jasotako prestazioak, izandako gastu guztien zenbatekoa muga delarik.

49. OINORDETZA ETA DOHAINTZEN GAINeko ZERGARI BURUZKO 2015eko MARTXOAREN 25eko 4/2015 FORU ARAUAREN 12. ARTIKULUAREN ARABERA, HONAKO HAUETAKI ZEINTZUK DAUDE ZERGATIK SALBUETSITA?

- a) Pentsio-planen onuradun diren pertsonek jasotako prestazioak, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari lotuta baldin badaude.
- b) Desgaitasuna duten pertsonentzat eratutako gizarte-aurreikuspeneko sistemei egindako ekarpenak.
- c) Bizitzaren gaineko aseguru-kontratuuen zioz jasotzen diren kopuruak, baldin eta kontratuok hitzartzen badira izaera zibila edo merkataritzakoa duen eragiketa nagusi baten estaldura gisa erabiltzeko. Dena dela, zor den kopurua bera izango da salbuespen horren muga, eta handik gorakoa dela-eta tributatu egin beharko da.
- d) Ondasunen foru komunikazioa desegitean ezkontide alargunari edo izatezko bikoteko kideari egiten zaizkion adjudikazioak, baldin eta komunikaziopeko ondasunetatik dagokion erdia ordaintzeko egiten bazaizkio.

50. ADMINISTRAZIO PUBLIKOEN ADMINISTRAZIO PROZEDURA ERKIDEAREN 2015eko URRIAREN 1eko 39/2015 LEGEARREN 9. ARTIKULUAN EZARRITAKOAREN ARABERA, BEHARTUTA DAUDE ADMINISTRAZIO PUBLIKOAK BERAIKIN HARREMANETAN JARTZEN DIREN HIRITARREN NORTASUNA EGIAZTATZERA?

- a) Bai, beti, salbu eta lege batek espresuki hala egitea debekatzen badu.
- b) Hiritarra zertarako zuzentzen den administriziora, ba, horren arabera.
- c) Bai, baina bakarrik hiritarrak eskubide edo interes legitimo edo kolektiboen titular legez sustatzen badu prozedura.
- d) Bai, administrazioarekin harremanetan jartzen denak uste badu 39/2015 Legearen 4. artikuluaren arabera interesduna dela.



51. ONDARE ESKUALDAKETEN ETA EGINTZA JURIDIKO DOKUMENTATUEN GAINeko ZERGARI BURUZKO 2011KO MARTXOAREN 24KO 1/2011 FORU ARAUAREN 6. ARTIKULUAREKIN ARABERA, NOIZ DAGOKIE FORU ALDUNDIEI ONDARE ESKUALDAKETEN ETA EGINTZA JURIDIKO DOKUMENTATUEN GAINeko ZERGAREN ORDAINARAZPENA?

- a) Ondasun higiezinen kostu bidezko eskualdaketa eta errentamenduetan, eta haien gaineko eskubide errealeen kostu bidezko eraketa eta lagapenean, baita berme-eskubideenean ere, baldin eta eskuratzaillek egoitza Bizkaiko lurraldean badu.
- b) Ondasun higikorren, abereen edo aziendaren eta kredituen kostu bidezko eskualdaketetan, eta haien gaineko eskubideen kostu bidezko eraketa eta lagapenean, baldin eta eskualdatzaileak ohiko egoitza Bizkaian badu, pertsona fisikoa bada, edo bestela, pertsona juridikoa bada, Bizkaian zerga-egoitza badu.
- c) Mailegu soilak, fidantzak, higiezinez bestelakoen alokatzeak eta pentsioak osatzen direnean, baldin eta eragiketak Bizkaian egiten badira.
- d) Berme erreala duten maileguak eratzen direnean, hipotekadun ondasun higiezinak Bizkaiko lurraldean badaude, edo lurralte horretan inskribatu badaitezke higigarrien hipotekak edo eskualdaketarik gabeko bahitarak.

52. HIRI-LURREN BALIO GEHIKUNTZAREN GAINeko ZERGARI BURUZKO 1989KO EKAINAREN 30EKO 8/1989 FORU ARAUAREN 3.3 ARTIKULUAREN ARABERA, HIPOTEKAREN ZORDUNAK EDO HAREN BERME-EMAILEAK BERE OHIKO ETXEBIZITZA ORDAINEAN EMATEN BADIO KREDITU-ENTITATE BATI EDO MODU PROFESIONALEAN MAILEGUAK EDO HIPOTEKA-KREDITUAK EMATEN DITUEN BESTE EDOZEIN ENTITATERI, EDO BETEARAZPEN HIPOTEKARIO, JUDICIAL EDO NOTARIAL BATEN ONDORIOZ ETXEBIZITZA HORREN ESKUALDATZEA GERTATZEN BADA, ZEIN HARTUKO DA ZERGADUNAREN ORDEZKO SUBJEKTU PASIBOTZAT?

- a) Lurra eskualdatzen duen pertsona fisiko edo juridikoa.
- b) Higiezina eskuratzentzu duen entitatea.
- c) Inor ere ez, salbuespenezko balizko kasu baten aurrean gaude.
- d) Inor ere ez, zerga horren menpe ez dagoen kasu baten aurrean gaude.

53. BIZKAIKO KONDAIRA LURRALDEKO FORU ERAKUNDEEN HAUTAPEN, ANTOLAKETA, ERREGIMEN ETA FUNTZIONAMENDUARI BURUZKO 3/1987 FORU ARAUAREN 7. ARTIKULUAREN ARABERA, ZER EZ DAGOKIE BATZAR NAGUSIEI?

- a) Bizkaiko Lurralte Historikoko aurrekontu orokorrak onartzea.
- b) Ekonomia Itunaren Legearen 45. artikuluko 1. zenbakiak aipatzen dituen tokikorporazioei dagozkien tributuen erregulazioa.
- c) Foru Aldundia osatzen duten foru sailen egitura organikoa onartzea.
- d) Bizkaiko lurralte guztiari dagozkion plan sektorialak onartzea.



54. NOIZ ARGITARATUKO DIRA JARRAIBIDEAK ALDIZKARI OFIZIALEAN?

- a) Beti, dagozkien ondorioak izan ditzaten.
- b) Bakarrik xedapen espezifiko batek hala behar duela ezartzen duenean.
- c) Bakarrik xedapen espezifiko batek hala behar duela ezartzen duenean edo egokitzat jotzen bada jasotzaileak nahiz sor daitezkeen ondorioak direla eta.
- d) Kasu honetan: baldin eta jarraibideak ez badira argitara ematen gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legearen arabera.

55. ZEIN DA ERANTZUN ZUZENA ADMINISTRAZIO PROZEDURA ERKIDEAREN 2015EKO URRIAREN 1EKO 39/2015 LEGEARREN 63. ARTIKULUAN EZARRITAKOAREN ARABERA?

- a) Zehapen-prozedurak ofizioz hasiko dira beti, organo eskudunaren ekinenez, eta behar den bezala bereiziko dira haietan instrukzio-fasea eta zehapen-fasea; organo banaren esku utziko dira bata eta bestea.
- b) Zehapen-prozedurak ofizioz edo alderdi batek eskaturik hasiko dira, organo eskudunaren ekinenez, eta behar den bezala bereiziko dira haietan instrukzio-fasea eta zehapen-fasea; organo banaren esku utziko dira bata eta bestea.
- c) Zehapen-prozedurak organo eskudunaren salaketa baten ondorioz hasiko dira, eta behar den bezala bereiziko dira haietan instrukzio-fasea eta zehapen-fasea; organo banaren esku utziko dira bata eta bestea.
- d) Zehapen-prozedurak beste organo batzuen eskaera arrazoituaren ondorioz hasiko dira, eta behar den bezala bereiziko dira haietan instrukzio-fasea eta zehapen-fasea; organo banaren esku utziko dira bata eta bestea.

56. BIZKAIKO KONDAIRA LURRALDEKO FORU ERAKUNDEEN HAUTAPEN, ANTOLAKETA, ERREGIMEN ETA FUNTZIONAMENDUARI BURUZKO 1987KO OTSAILAREN 13KO 3/1987 FORU ARAUAREN 20. ARTIKULUAREN ARABERA, ZER EZ DA BEHARREZKOAGERTZEA BATZORDE ESKUORDETUAK SORTZEKO DEKRETUETAN?

- a) Batzordea sortzeko eskatzen duen foru saila.
- b) Batzordearen sorkuntzaren zioak.
- c) Batzordea osa dezaten kideak.
- d) Mahaiburu izango den foru diputatua.



57. ZEIN DA ERANTZUN ZUZENA ADMINISTRAZIO PROZEDURA ERKIDEAREN 2015EKO URRIAREN 1eko 39/2015 LEGEAREN 16. ARTIKULUAN EZARRITAKOAREN ARABERA?

- a) Erregistro elektroniko orokor bakarra izango dute administrazio publiko guztiak, eta administrazio bakoitzari lotutako beste organismo publikoek ezingo dute beren erregistro elektronikoa eduki.
- b) Erregistro elektroniko orokor bakarra izango dute administrazio publiko guztiak, eta administrazio bakoitzari lotutako edo haren mendeko beste organismo publikoek beren erregistro elektronikoa eduki ahal izango dute, buru duten administrazioaren erregistro elektroniko orokorrarekin osotara lotua eta elkarreragingarria.
- c) Erregistro elektroniko orokor bakarra izango dute administrazio publiko guztiak, eta administrazio bakoitzaren mendeko beste organismo publikoek ezingo dute beren erregistro elektronikoa eduki.
- d) Erregistro elektroniko orokor bakarra izango dute administrazio publiko guztiak, eta administrazio bakoitzari lotutako edo haren mendeko beste organismo publikoek beren erregistro elektronikoa eduki ahal izango dute, baina erregistro hori ez da egongo osotara lotua buru duten administrazioaren erregistro elektroniko orokorrarekin eta ez da izango harekin elkarreragingarria.

58. ZEIN DA ERANTZUN ZUZENA ADMINISTRAZIO PROZEDURA ERKIDEAREN 2015EKO URRIAREN 1eko 39/2015 LEGEAREN 113. ETA 125. ARTIKULUAN EZARRITAKOAREN ARABERA?

- a) Gora jotzeko errekursoak ebatzen dituzten izapide-egintzen aurka bakarrik aurkez daiteke berrikuspen-errekurso berezia.
- b) Ezin aurkez daiteke berrikuspen-errekurso berezirik Administrazio Prozedura Erkidearen 2015eko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 112.2 artikuluak aipatzen dituen prozeduren ebatzen aurka.
- c) Berrikuspen-errekurso berezia aurkez dako, besteak beste, administrazio-bidetik irmotzat jotzen diren akordio, itun, hitzarmen edo kontratuak aurka, egintza horiek eman zituen administrazio-organoari, baldin eta egintza ematean egitezko okerren bat gertatu bada besteak beste, expedienteari erantsitako dokumentuei lotua.
- d) Berrikuspen-errekurso berezia aurkeztu ahal izango da administrazio-xedapen orokoren aurka, baldin eta xedapenok bat badatoz legedi espezifiko batek ezarritako prozedurekin eta hala egin daitekeela xedatzen badu erregelamendu-xedapen batek.

59. SEKTORE PUBLIKOKO KONTRATUEI BURUZKO AZAROAREN 8KO 9/2017 LEGEAREN 2. ARTIKULUAN XEDATUTAKOAREN ARABERA, ZER JOTZEN DA SEKTORE PUBLIKOKO KONTRATUTZAT? (LEGE HORREK EUROPAKO PARLAMENTUAREN ETA KONTSEILUAREN 2014KO OTSAILAREN 26KO 2014/23/EB ETA 2014/24/EB ZUZENTARAUEN TRANSPOSIZIOA EGITEN DU ESPAINIAKO ORDENAMENDU JURIDIKORA).

- a) Sektore publikoa osatzen duten erakundeek kostu bidez egindako kontratuak, kontratuaren izaera juridikoa edozein dela ere.
- b) Sektore publikoa osatzen duten erakundeek kostu bidez egindako kontratuak, kontratuaren izaera publikoa bada.
- c) Sektore publikoa osatzen duten erakundeek egindako irabazizko kontratuak, kontratuaren izaera juridikoa edozein dela ere.
- d) Sektore publikoa osatzen duten erakundeek egindako irabazizko kontratuak, kontratuaren izaera publikoa bada.



60. BIZKAIKO KONDAIRA LURRALDEKO FORU ERAKUNDEEN HAUTAPEN, ANTOLAKETA, ERREGIMEN ETA FUNTZIONAMENDUARI BURUZKO OTSAILAREN 13KO 3/1987 FORU ARAUAREN 63. ARTIKULUAREN ARABERA, FORU ADMINISTRAZIOAREN IZAERA OROKORREKO XEDAPENEK HONAKO ARAU-HIERARKIARI JARRAITUKO DIOTE:

- a) Foru arauak; Foru Aldundiaren foru dekretuak; Ahaldun Nagusiaren foru dekretuak; foru aginduak.
- b) Foru arauak; Ahaldun Nagusiaren foru dekretuak; Foru Aldundiaren foru dekretuak; foru aginduak.
- c) Foru arauak; Foru Aldundiaren foru dekretuak; foru aginduak; Ahaldun Nagusiaren foru dekretuak.
- d) Foru arauak; foru aginduak; Foru Aldundiaren foru dekretuak; Ahaldun Nagusiaren foru dekretuak.

61. TOKI-ARAUBIDEAREN OINARRIAK ARAUTZEN DITUEN APIRILAREN 2KO 7/1985 LEGEAREN 7. ARTIKULUAN EZARRITAKOAREKIN BAT:

- a) Toki-erakundeen eskumenak berezkoak edo eskuordetzan emanak dira.
- b) Probintziek, bakoitzak beren eskumenak gauzatzerakoan, toki-erakundeei eskuordetu diezaiekete beren eskumenak gauzatzea.
- c) Udalerrri, probintzia, uharte eta gainerako lurralte mailako toki-erakundeen berezko eskumenak legez edo garapen-erregelamenduez zehaztu daitezke.
- d) Berezkoak eta eskuordetzaz esleiturikoak ez diren beste eskumenak baliatzea ez dago inongo baldintzaren mende.

62. ZEIN DA ERANTZUN ZUZENA EUSKAL FUNTZIO PUBLIKOARI BURUZKO 1989KO UZTAILAREN 6KO 6/1989 LEGEAREN 37. ARTIKULUAN EZARRITAKOAREN ARABERA?

- a) Euskal administrazio publikoetako funtzionario-izaera galtzen da funtzionario horren eginkizunak etetea dakarren diziplina-zehapen batengatik.
- b) Euskal administrazio publikoetako funtzionario-izaera galtzen da zerbitzutik behin-betiko kentzea dakarren diziplina-zehapen irmo batengatik.
- c) Euskal administrazio publikoetako funtzionario-izaera galtzen da kargugabetzea dakarren diziplina-zehapen batengatik.
- d) Euskal administrazio publikoetako funtzionario-izaera galtzen da zerbitzutik behin-betiko kentzea dakarren diziplina-zehapen batengatik.



63. AUTONOMIA ESTATUTUAREN 39. ARTIKULUAN XEDATUTAKOAREKIN BAT, NORK EBATZIKO DITU AUTONOMIA ERKIDEGOKO ERAKUNDEEN ETA LURRALDE HISTORIKO BAKOITZEKOEN ARTEAN SOR LITEZKEN ESKUMEN-GATAZKAK?

- a) Eusko Jaurlaritzak eta doakion lurraldeko Foru Aldundiak askatasunez izendatutako kide berdinez osatutako bitartekaritza-batzorde batek.
- b) Eusko Legebiltzarrak, doakion lurraldeko foru aldundiari entzunaldia egin ondoren.
- c) Eusko Legebiltzarrak eta doakion lurraldeko Foru Aldundiko Batzar Nagusiek askatasunez izendatutako kide berdinez osatutako batzorde misto batek.
